

IKERKETA EGITASMOA

Euskal soziolinguistikaren bihar-etziko arloetako lan-ildoak eta teknikarien formazioa aurreikusten.

**Egilea: Josemari Robles Aranburu
Bilbon, 2002ko uztailaren 24an.**

AURKIBIDEA

1. Aurrekariak.	1
2. Marko teorikoa.	4
3. Helburuak.	11
4. Metodologia.	14
4.1. Ikerketa eremua.	
4.2. Datu bilketarako teknikak.	
4.3. Emaidzen txostena.	
5. Ikerketaren garapen uneak eta faseak.	26
6. Fitxa teknikoak.	27
7. Kronograma.	29
8. Aurrekontua.	30
9. Bezeroarekin harremanak	31
10. Bibliografia.	

AURREKARIAK

Jakina da euskararen soziolinguistika (zientzia autonomoa) gaztea dela. Honek, hogei urteko bidea egin badu ere, luzea da oraindik ibili beharrekoa bai egun bizi dituen ahuleziak konpontzeko, bai bihar-etziko erronkei aurre egiteko, besteak beste, soziolinguistikaren joerak egunez egun ugaltzen ari baitira.

Hau ezagututa, 2000ko azaroan SEI elkartearen ekimenak *Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen* sinposiuma bideratu zuen Gasteizen, eta han, euskal soziolinguistikaren ahuleziak eta indarguneak aztertzeaz gain, balizko Institutuaren izaera eta lan-ildoak zedarritzeko asmoak bildu ziren.

Sinposium horretan azaldutako kontu guztiak garrantzitsuak izan ziren euskal soziolinguistikaren erradiografia bat egin eta aurrera begira dauden beharrianak zehazteko. Aztertu ziren gai guztiak elkarrekin eraginean daudela jakinda ere, lan honen xedea da jorratutako gai batean sakontzea; euskal soziolinguistika zertan ari izan den eta den, eta horretan ari direnak zer formazio behar duten egungo eta aurrera begirako eginbehar horiek ahalik eta ondoen burutzeko, alegia.

Arazo honetaz, Emili Boix Fuster, Unibertsitat de Barcelonako irakasleak esandakoa gogora ekarrita: “*Soziolinguistika diziplinarentzat oraindik ez dira espezialistak propio prestatzen. Ez dago unibertsitate sail espezializaturik, ez izen horren pean pilatu ditugun etiketa gehienak biltzen dituen nazioarteko elkarte sendorik*¹.”

Gauzak horrela, Emili Boix irakasleak soziolinguistikan ari den batek izan beharreko formazio idealaren argazkia eskaini du² eta eginkizun horri

¹ BAT aldizkaria, 37.zka. 28.or.

² *Ibidem*, 24-27.orr.

ekiteko beharrezkoa ikusten du gaur egun soziolinguistikan ari direnen jatorri profesionala ezagutzea.

Hona bada ikerketa honen nahia: euskararen normalizazioaren alde ari diren profesionalak, zertan (arloak) ari diren eta zelako prestakuntza duten ezagutzearekin batera, aurrera begira maila bi hauetan dauden erronkei ekiteko, hauen eta adituen arteko ahalik eta asmo bateratuena lortzea. Horretarako bada, garrantzitsua iruditzen zait, batetik, Nekane Jausorok eta bestetik, Julen Arexolaleibak sinposiumean eskaini zizkiguten informazioaz³ baliatzea, argi azaltzen baitigute orain arte soziolinguistikaren arlo akademikoaren zein aplikatuaren argazkia eta honek egindako bidea.

Ondorioz, gaur egun euskal soziolinguistikako profesionalek lantzen ari diren arloak eta dituzten prestakuntzak ezagutzeaz gain, gaur eguneko zein aurrera begirako arlo ezberdinetan aritzeko behar(ko) diren formazio ezberdinen egitasmoen nondik norakoak aurreikusteko aditu eta profesionalen diskurtsoan sakondu nahi dut, hauen iritziak eta jarrerak ezagutzeko. Hau guztia beti ere, arlo bakoitzean dauden beharrizanak eta diziplinartekotasuna kontua hartuz.

Asmo honetarako metodologia aukeratzerakoan, metodo kuantitatiboa eta kualitatiboa erabiltzea erabaki dut. Batetik, lehenago esan dudan moduan, zenbait profesional eta adituen diskurtsoan eta iritzietan sakontzeko, eta bestetik, azken hauek proposatutako bideak inkesta batean jaso ondoren, gaur egun arlo ezberdinetan dauden profesionalen lagin bat hartu eta aurrekoek proposatutako ideien balorazioa ezagutzeko.

³ *Ibidem*, 31-54.orr

Modu horretan, egindako proposamenek izan duten harrera ezagututa, balizko prestakuntza ezberdinak gauzatzen hasteko beharrezkoak izango diren baliabideak zehaztu ahal izango dira.

MARKO TEORIKOA

Soziolinguistikaren jaiotza-data finkatzea zaila da, autore guztiak ez baitatoz bat. Halere, ziurtasunez esan daiteke, soziolinguistikak 60.eko hamarkadan AEBetan ekin ziola indarrez. EHan berriz, 70.eko hamarkadako bukaeran eman ziren lehenengo urratsak.

Soziolinguistika gaur egun, hizkuntza eta gizartearen arteko harremana aztergai duten iker-eremu guztiak izendatzeko erabiltzen den terminoa da. Honen definizio zabala eta integratzailea emanez gero, zera da: hizkuntzen, hizkuntza komunitateen, eta hiztunengan gertatzen diren aldaketak aztertzen dituen zientzia.

Terminoa bera hibridoa bada ere, soziolinguistika ez da soziologia eta hizkuntzalaritzaren arteko justaposizioa, bi jakintza hauen ezagutzetan oinarritzen baita, eta diziplinarteko izaera du. Izaera honek, ematen dio, hain zuzen, haren objektua eta metodologia zehazteko autonomia.

Soziolinguistikaren helburua hiztunengan gertatzen diren aldaketen baldintzak eta faktore eragileak ezagutzea da eta eredu teorikoak eta metodologikoak erabiltzen ditu etorkizuneko aldaketak aurreikusi eta bideratzeko. Soziolinguistikaren interesa, beraz, hizkuntzak gizartean daukan eraginean datza eta horregatik, pertsonarteko harremanetan dagoen sistema abstraktuaren funtzionamenduari egiten dio arreta.

Ondorioz, funtzionamendu horretan dauden arazoak ezagutzeko nahiz aldatzeko, beharrezkoa du zenbait diziplinaren ekarpena. Diziplina hauetako bakoitzak, baina, bere ikerketa gai eta kontzeptu jakin batzuk dituztenez, ez dira guztiak batean gorputzera iritsi maila jasoagoko teoria bat eraikitzeko, eta honek ematen dio hain justu daukan diziplinarteko izaera.

Eginkizun horretan (Hizkuntza-Gizartea bikotearen ikerketan) ikerlariak daukan formazioaren arabera izango da arazo zehatz bat ezagutzeko erabiltzen duen fokotzea: hizkuntzalariak joera handiagoa izango du Soziolinguistikarekiko, soziologoak Hizkuntzaren Soziologiarekiko, psikologoak Gizarte Psikologiarekiko eta antropologoak, berriz, Gizarte Etnografiarekiko.

Hortaz, eginkizun horietarako zenbait diziplinez osatzen da: lengoaiaren zientzien barnean dauden diziplinez eta gizartearen inguruko diziplinez. Diziplinok elkarrekin daude harremanetan eta ikertzaileak hartzen duen posizioaren arabera, diziplina bat bestearekin edo besteekin elkarlotuko ditu.

Oro har, hauek dira Soziolinguistikan dihardutenek azaldu nahiz aldatu nahi dituzten auziak: hizkuntzak ezagutzaren arrazoiak; hizkuntzak erabiltzearen arrazoiak; aldaera ezberdinen erabilerak; gizarte sareak; jendearen jarrerak hizkuntzarekiko; hizkuntzak pizten dituen asoziazioak; ezagutzan eta erabileran eragiteko aukerak; hizkuntzaren iraupena ziurtatzea; hizkuntza aniztasuna; hizkuntza eta gizartearen arteko harremana; giza hizkuntzaren izaera hobeto ulertu; eta hizkuntza bera.

Arestian esan dudan moduan, ikerketa soziolinguistikoak erabilera soziala du aztergai, eta hizkuntza komunitate batek bizi duen egoera, dinamika eta prozesu sozial eta historikoak aztertzen ditu. Izan ere, giza hizkuntzaren izaera hobeto ulertzeko, hizkuntza bere inguru sozialean ikertzen du eta/edo hizkuntza eta gizartean arteko interakzioaren izaera. Asmo horrekin hizkuntza orokorrean nahiz edozein hizkuntza forma edo aldaera berezi nola erabiltzen den aztertzen du.

Beraz, soziolinguistikak ez du hizkuntzaren barruko egitura aztertzen (hizkuntzalaritzaren eginkizuna baita hori), hizkuntza bera baizik: hizkuntzari lotuta dauden arazo sozialetaz interesatzean, hizkuntza aniztasuna aztertzen du, eta baita, hizkuntza erabilerak une eta leku jakin batean gizarteko arazo, gatazka eta baliabideak nola zeharkatzen duten.

Soziolinguistikaren joera nagusiak zedarrirituz gero, hauek bi polo nagusitan banatu daitezke: soziopsikolinguistikoa eta linguistikoa. Lehenengoak gizartean arreta berezia jartzen du eta bigarrenak hizkuntzari erreparatzen dio. Horiek biak kontuan hartuta, bereizketa hau egin ahal da soziolinguistikaren barnean:

Polo soziopsikolinguistikoan Gizartearen soziolinguistika daukagu; eta hau, gizartean arreta berezia jartzen duten soziolinguistikako joerak izendatzeko erabiltzen dugu. Polo linguistikoan, Hizkuntza soziolinguistika daukagu, zeina hizkuntzari bereziki erreparatzen dioten joerak adierazteko erabiltzen dugun.

Gizartearen soziolinguistikak ondoko arloak ikertzen ditu, besteak beste: botere soziala noren esku dagoen eta arau sozialak zein diren (nola sortzen diren eta hizkuntzaren erabilera). Arlo horiek ikertzeko hizkuntzaren soziologia eta psikologia soziala izango dira bere tresnak.

Hizkuntzaren soziologiak egitura eta botere sozialen arteko harremanak aztertzen ditu, eta baita; hizkuntzaren erabilera, gaitasuna eta ideologiaren aniztasuna eta desberdintasuna (egitura sozialen adierazle nagusietan) eta erabilera hauek gorpuzten dituzten arau sozialetan arreta berezia jartzen du. Honen joera nagusienak dira: hizkuntza ezagutza, erabilera eta ideologiei buruzko inkestak.

Hizkuntza soziologiaren bidez, hizkuntza politika jakin bat burutzeko eremua zehaztu eta hizkuntza planifikazioak egiten dira. Honek egoera soziolinguistikoan ekiteko eta eragiteko arrazoitutako estrategiak proposatzen ditu; gizarte zientziek eskaintzen dioten egoerari buruzko ezagutza horretatik abiatuta.

-Status planifikazioa: hizkuntzaren funtzio sozialak

-Corpus planifikazioa: hizkuntzaren forma eta erabilera.

Hizkuntza psikologia sozialak hizkuntza erabileran, gaitasunean eta ideologiaren aniztasunean jarriko du arreta. Horretarako talde txikiak zein populazio multzoak hartzen ditu hauen jarreraren azterketa esperimentalak egiteko. Hizkuntza kokapen subjektiboa ere neurtzen du.

Ikuspegi hauek guztiek hizkuntza aniztasuna duen errealitate ororen baitan dagoen logika sozialari erantzun nahi diote.

Bigarren poloan forma linguistikoek garrantzi handiagoa hartzen dute eta Hizkuntza antropologia dugu ikuspegi honen ardatz. Ikerketa hauek hizkuntzazko benetako interakzioak jorratu eta aztertzen dituzte.

Esan bezala, Hizkuntza antropologian forma linguistikoak dute garrantzia eta hauek maila mikrologikoan aztertzen dira. Komunikazioaren etnografia da haren joera ezagunena eta helburua da gizabanakoek errealitateaz duten ikuspegi subjektiboa, barne logika ezagutzea. Horretarako, behaketa partehartzailearen metodologia erabiliko da.

Polo honen beste ikuspegi batetik, egitura eta hizkuntza aldaketa zein diren aztertzen da. Horretarako, gizartean jartzen da arreta (honek hizkuntzaren egitura eta aldaketa ulertzen laguntzen duen neurrian). Tradiziorik

indartsuena soziolinguistika bariazionistarena da. Honek hizkuntza nola aldatzen den aztertzen du, eragile sozialak eta hizkuntzarenak kontuan hartuta. Beste joera batzuk dialektologia sozial eta urbanoaren bidetik doaz.

Hauek dira beraz, soziolinguistikaren aniztasunaren seinale aurkitu ahal ditugun joera nagusiak. Dena den, kontuan izan behar dugu soziolinguistika joerak egunez egun ugaltzen ari direla.

Ondorioz, esan daiteke, soziolinguistikaren ikuspegiari esker hizkuntzaren ‘arazoak’ bere osotasunean, zientzia oso bezala aztertzeke aukera dugula; eta zientzia oro bezala soziolinguistika era unibertsala denez gero, hizkuntza guztiak aztertu eta ulertzeke baliagarria izango zaigun logika orokorraren arabera ulertuko dugu.

Aipatutako ikerketa arloak edozein izanda ere, ikertzaileak hauen guztien ezagutza izan behar du; hau da, joera baten formazio espezializatua jaso arren, diziplinarteko eremuaren ikuspegi orokorra izan behar du. Horregatik, gaur egungo soziolinguistikan dagoen erronka bat da soziolinguisten formazioan teoria sozialaz gehiago arduratzea, ez baitago joera handia teoria sozialaz kezkatzeke eta bai berriz hizkuntzalaritzaren pean gordetzeke. Horregatik, hizkuntzaren normalkuntza bideratzeko, ezinbestekoa da normalizazio bide horretan lan egingo duten profesional prestuak izatea, hau da, giza kapitalaren kualifikazioa.

Arazo horri dagokionez, Euskal Herrian, izaera soziala duten entitateak bakarrik kontuan hartuta, esan liteke, teknikarien figura 90. hamarkadan hasi zela zabaltzen, dedikazio profesionalaren esparruan finkatuz. Eta bide horretan; teknikariak, korrante soziolinguistikoek, ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak eta euskalgintza barruko eztabaidak garrantzia hartu dute.

Baina garaiotako erronkak handiak dira eta teknikari figura finkatu eta espezializazioa eta profesionaltasuna ugaltu bada ere, giza kapital kualitatiboaren eta baliabide eta lanabes egokien premia ere handia da.

Horregatik eta ikusita gaur egungo soziolinguistikek jatorri profesional oso desberdinak dituztela eta oro har, “formazio murrizta”, dauden erronkei aurre egiteko beharrezkoa izango da formazio on bat. Honen bidez, teknikari batek finkatuta dauden gutxienezko ezagutzak edo gaitasunak izan ditzan, esaterako: ikertzeko gaitasuna; egoera soziolinguistikoari buruzko norberaren irizpideak izatea; artekaritza eta lan taldean aritzeko gaitasuna; komunikazio gaitasuna...

Beraz, estrategiaren araubide egoki bat eta diskurtso propioa sortu eta finkatu nahi bada beharrezkoa da formazioa, informazioa eta material teknikoa. Eta horretarako; ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak... eta informazioa zabaltzeko bide espezialduak behar dira.

Hortaz, orain arte egindako formazio saioetan parte hartu dutenen ebaluazioa jasotzearekin bat eta teknikarien ahuleziak ezagututa, egon daitezkeen ahuleziak identifikatu eta aurrera begira ahuleziok bideratzeko aproposak izan daitezkeen formazio programak diseinatzeko informazioa ezagutu nahi da.

HELBURUAK

Esan bezala, euskal soziolinguistikak badauka hogei urteko bidea eginda, baina oraindik badauka zer hobetu. Eginkizun horretan, besteak beste, profesionalen formazioa dago.

Soziolinguistikaren joerak ugalduz doazen heinean ezinbestekoa egiten da prestakuntza ezberdinetan teknikariek dituzten ahuleziak ezagutzea; teknikarien prestakuntza egunean egoteko eta aurrera begirako balizko beharrei aurre egiteko.

Ondorioz, badago batetik joera ezberdinenak zertan diren jabetzeko beharra, eta bestetik, bihar-etziko teknikari berriak prestatzeko beharrezko izango den formazioa zedarritu beharra.

Ekimen hori gauzatzeko baina, arazoa bete-betean ezagutzen dutenengana jo beharra dago, eta horretarako zer hobe euskal soziolinguistika hurbiletik ezagutu edota bere eguneroko jardunean horretan murgilduta daudenak baino.

Hona bada, ikerketa honen helburu nagusia:

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAREN ARLO EZBERDINETAN ARI DIREN PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA EZAGUTZEAREKIN BAT, HAUEK, EGUNGO ETA BIHAR-ETZIKO SOZIOLINGUISTIKAREN JOERAK ETA TEKNIKA BERRIAK ZERTAN DIREN EZAGUTZEKO, BEHARREZKO IZANGO DEN PRESTAKUNTZAREN NONDIK NORAKOAK ZEDARRITZEA.

Helburu nagusi hori ezagutzeko, beharrezkoa ikusten dut helburu horretan eragiten duten bestelako hauetan sakontzea:

MAILA KUALITATIBOAN

- Soziolinguistika alorreko joera ezberdinen nondik norakoak ezagutu. Jakinda ere alor ezberdinak jorrazteko erabili daitezkeen bideak ez direla zertan batekoak izan behar, asmoa da daudenak ezagutu eta aritu guztiek estrategia egokiak eta bateratuak izateko behar dituzten gutxienekoak zedarrizteko proposamenak eskuratzea.

- Euskal soziolinguistikako adituek soziolinguistika alorrean behar den prestakuntzaz duten iritzia ezagutu.

Ezagutu nahi da soziolinguistika arloko zenbait adituren iritzia: Batetik; zer prestakuntza mota ikusten duten beharrezkoa gaur egun euskal soziolinguistikan aritzeko. Bestetik; dauden joera berriak kontuan izanda, zein izango diren bihar-etziko profesional berriek beharko dituztenak. Hauek dira aukeratuko diren arloak:

-administrazioko erabilera planak

-enpresetako erabilera planak

-ikastetxeetako erabilera planak

-administrazioko prestakuntza planak

-udaletako erabilera planak(Biziberritze plana eta Kontseiluarena)

-euskararen corpusa normalizatzeko planak

-soziolinguistikan arlo ezberdinetan adituak diren unibertsitateko zenbait irakasle

Adituak aukeratzeko ondoko ezaugarriak hartuko dira kontuan:

-Soziolinguistika arloan, maila aplikatua eta/edo akademikoan, urteetako esperientzia nahiz ezagutza aitortua dutenak.

- Egungo euskal soziolinguistikan ari direnen jatorri profesionala ezagutu eta hauek izan duten formazio profesionalari buruz duten iritzia. Ezaguna baita soziolinguistika diziplinarteko zientzia dela eta horretan ari direnen formazioa ezberdina dela. Hori horrela izanda, jakin gura da, zer nolako prestakuntza jaso duten eta zein den honi buruz duten balorazioa.

Ondorioz, helburu honetan kontuan izango da soziolinguistika arloan hasi baino lehen izandako prestakuntzak (akademikoak e.a.) eta baita lanean dihardutela izandakoak.

- Alor ezberdinetako teknikariek eguneroko lanari ekiteko zer behar antzematen duten prestakuntza mailan.

Edozein lanetan legez, bizi ditugun aurrerapen guztiak zein soziolinguistikan bizi diren joeran aldaketak kontuan izanda, honek prestakuntza eguneratu beharra dakar. Horra bada asmoa; gorago aipatutako arlo ezberdinetako teknikariek dituzten ahuleziak ezagutzea.

MAILA KUANTITATIBOAN

- Euskal soziolinguistikako adituek zein arituek antzemandako beharrak eta hauei aurre egiteko proposatu dituzten prestakuntza motak nahiz bideak teknikarien artean nolako harrera duten ezagutu.

Behin teknikariek lanean aritzeko dituzten ahuleziak aitortuta, hauei adituek zein adituek luzatutako proposamen zerrenda luzatuko zaie: teknikariek zerrendako proposamenen aurrean agertzen dituzten jarrerak ezagutu nahian.

METODOLOGIA

Azterketa soziolinguistikoan beste edozein gai sozialaren azterketan gertatzen den legez, alderdi garrantzitsua da nolako metodologia aukeratzen den. Horrek ikerketa modu egokian definitzeko eta egiten diren hipotesien argibideak aurkitzeko ezinbesteko tresna bihurtzen du.

Izan ere, ikerketa zientifikoaren bidez ezagutu nahi dugun errealitatea, zenbaitetan, metodologia bat edo beste aukeratu beharra ekarriko du. Baina, gaur egun, oso zaila da metodo zientifiko bakarra dagoela esatea; epistemologia mailan aho-bateko adostasun falta baitago eta jardun zientifikoaren praktika oso anitza eta zabala baita. Ondorioz, gertaera sozialak aztertzeko ditugun metodologiak hiru tradizio eta paradigma ezberdinen artean lotuak daude, egon diren eta dauden joera eta nagusitasunarekin. Izan ere, haien arteko osagarritasuna, joera eta aniztasun metodologikoaren beharra lortu behar da.

Ez dago beraz metodo bakar eta unibertsalik onartuta. Baina bai printzipio batzuk, esaterako: ezagutza errealitate enpirikoarekin egiaztatu beharra. Horregatik, teoria eta errealitatearen arteko elkarren osagarritasun bat dago; —gertaera sozialak ikertzean, ikerlaria ikerketa-objektuaren baitan baitago eta ikerketa-objektu horren elementuak aktore eta subjektuak dira.

Gertaeraz gain, gizabanakoaren zein taldearen diskurtsoak daude. Errealitate sozialean beraz, dimentsio historikoaz gain, dimentsio faktikoa eta dimentsio sinbolikoa batera datoz: dimentsio faktikoak kuantifikatzeko moduko datuak biltzen ditu eta dimentsio sinbolikoak berriz, diskurtsoen azterketak konprenitu eta interpretatzen.

Hortaz, metodologia orok bere mugak ditu, baina elkarren osagarri dira.

Honen guztiaren ildotik, ikerketa honetarako aukeratu dudan planteamendu metodologiakoa, bitarikoa da: batetik; kualitatibo-estrukturala, bestetik; kuantitatiboa.

Ikerketa kualitatibo-estrukturalistaren ikuspegitik, hurbilpen positibistaren ikuspegitik ez bezala, ez dago ikerketa ideal edo abstrakturik. Dagoena da ikerketa konkretu bat, hemen eta orain egiten dena eta ikerketa datuen ekoizpenaren prozesu bat da, hots, objektua eraiki egiten da.

Horretaz jabetuta, Jesus Ibañezek¹, gizarte ikerketaren barnean hiru hurbilpen ezberdin eraiki zituen, eta hiru maila hauekin egin nahi zuena zen kuantitatibo/kualitatibo dikotomia murriztailea gainditu, subjektua eta objektua uztartuz. Hauek dira Ibañezek proposatutako hiru hurbilpenak:

Hurbilpen distribuiboa: datuak elementu bezala irudikatzen dira. Unitatea banakakoa da, hau da; populazioa elementuz osatuta dago eta hauen distribuzioa bilatzen du. Bere maila epistemologikoa estatistikan oinarritzen da: kopuruak banatzea da helburua eta teknika egokia inkesta izango da. Hurbilpen positibista denez, subjektuaren eta objektuaren arteko harremana ezeztatzen da

Hurbilpen dialektikoa: harremanen arteko harremanetan oinarritzen da, hau da, sistema mailan. Subjektuaren eta objektuaren arteko harremana berrelikadura harremana da. Izan ere, subjektuak eragina du objektuan eta alderantziz.

Egitura hurbilpena: taldean oinarritzen da, hau da, gizarte egitura mailan. Ikerketaren espazio sozio-diskurtsiboa kategorien bitartez egituratua dago

¹ IBAÑEZ, Jesús. *Del algoritmo al sujeto*. Madrid: Siglo XXI. 1985

eta kategoria horien bidez ikerketa burutuko da. Hizkuntza ikerketa objektua da, eta subjektuaren eta objektuaren arteko harremana erlatibista da, ikertzaileen posizio ezberdinen arabera egoera anitzak baitaude. Talde teknika izango da teknika mota egokiena eta bereziki eztabaida taldea.

Ikerketa kualitatibo –estrukturalaren prozesua, gizarte taldeen egituraketa sozio-distributiboan oinarritzen da. Gizartea, *gertakariz* eta *diskurtsoz* osatua dago. Dimentsio biak elkarloturik doaz, eta *gizarte praktikak* deitzen dira. Hurbilpen honek, gizarte praktiken zentzua ditu aztergai, hots; eguneroko bizimoduan eraikitzen dituzten gizarte esanahiak aztertzea du helburu. Hauek ezagutzeko prozesuan ikertzailearen posizioa aktiboa da, inplikazio maila handikoa, prozesu osoan hartzen baitu parte. Prozesu irekia da, aldagarria izan baitaiteke alde zurretik erabakitako diseinua. Ikerketaren sakontasunean oinarritzen da eta horregatik egokia da zerbitzu, programa edo ekintza bat martxan jartzeko behar den egoerari buruzko alde zurreko ezagupena edukitzeko.

Azken hurbilpen hau izango da lan honen oinarri nagusia eta horretarako, hasiera batean ikerketaren nondik norakoa zehaztuko da. Jarraian, euskal soziolinguistikaren inguruan ikerketa arlo ezberdinetan egindako ibilbideak ezagutu eta prestakuntza alorrean egindako saiakerak neurtzeko egon ahal den informazioa bilduko da. Eginkizun hori medio, prestakuntza mota ezberdinak kontuan hartu eta azken saiakeratik hasita, orain arte egin direnak sailkatuko dira, horiek ebaluatu eta aiposak aukeratzeko.

Ebaluazioa ondoko irizpideak hartuta egingo da:

- 1.Programen kontzeptualizazioa eta diseinua
- 2.Programen inplementazioa
- 3.Programen eraginkortasuna
- 4.Programen efikazia

Honen ondoren, aurretik prestakuntza programen kalitatea hobetzeko, zein hauen diseinua eta gorpuzteari buruz inoiz egindako ikerketarik, artikulurik, ebaluaziorik e.a. baldin badago, hauek aztertu, helburuak zehazteari ekin eta azterketarako baliagarriak izan daitezkeen pertsona informatzaileen soslai zedarrituko da.

Aurrerago esan dudan legez, lehendabizi maila kualitatiboan bideratuko dut azterketa, geroago, maila kuantitatiboan oinarrituta inkesta bat erabiltzeko. Inkesta honen bidez lortutako proposamenen gainean arlo ezberdinetako teknikarien dituzten iritzi edo jarreraren hedapena ezagutu nahi da.

IV.1. **Ikerketa eremua**

Ikerketa honen eremua, Euskal Herriko euskal soziolinguistikaren alorreko adituak zein arituak diren pertsona guztiak dira. Beti ere, ikerketarako beharrezkoa den informazioa jasotzeko orduan, Euskal Herrikoak ez diren adituen iritziak kontuan izateko aukera zabalik utzita.

IV.2 Datu bilketarako teknikak

Hauek dira metodologia kualitatiboa erabilita informazioa bildu eta aztertzeko erabiliko ditudan teknikak:

Talde nominala:

Talde nominala taldean ideiak sortzeko teknika da. Honen helburua da ideiak sortzea, arazo bati konponbideak bilatzea. Taldekide bakoitzak ideia batzuk ematen ditu, hauek azaldu egiten dira eta adostasuna edo puntuazio baten bidez egokienak aukeratzen dira.

Teknika hau izango da lehendabiziko urratsa. Honen helburu nagusia da bai sakontasunean egin beharreko elkarriketetan, bai inkestan taldeetan erabili beharreko gidoiaren nondik norako ildoak zein aldagaiak ezagutzea.

Horretarako arestian finkatu diren arlo ezberdinetako adituei ikerketaren asmoa azalduko zaie eta euskal soziolinguistikan ari direnentzako prestakuntza proposamenak egiteko eskatu.

Hauek bildu ostean, bateratu eta berriro bidaliko zaie, egindako proposamenetan ezer gehitu edo aldatzeko beharra ikusten duten jakiteko.

Sakontasunean egindako elkarrizketak:

Hauen bidez, arlo ezberdinetako teknikarien iritziak ezagutu nahi dira. Hasiera batean arlo bakoitzetik 2-3 teknikari aukeratuko dira (beti ere agortze printzipioa kontuan hartuta) eta elkarrizketa bana burutu.

Arloen kategoriaz gain, lanean duten antzintasuna ere kontuan hartuko da. Horretarako, kontuan izanda, oro har, profesional figura 90. urtean gauzatu zela, hiru kategoria egingo dira:

- A.- 0-4 urte bitarteko antzintasuna dutenak.
- B.- 5-7 urte bitarteko antzintasuna dutenak
- C.- 8-12 urte bitarteko antzintasuna dutenak

Elkarrizketa hauen iraupena gutxi gorabehera, 50 minutukoa izango da eta grabatu egingo dira.

Teknika honek informazio lortzea du helburu eta horretarako, zenbait elkarrizketa egiten dira pertsona bat edo gehiagorekin ikerketa analitikorako edota tratamendu sozialak edo diagnostikoek egiten laguntzeko. Elkarrizketa mota honek komunikazio prozesu bat eskatzen du eta elkarrizketa egileak elkarrizketaturen buruan dagoen informazio garrantzitsuena bilatu behar du; haren esanahiak, perspektibak eta interpretazioak, haiek bere mundua ikusi eta sailkatzen duten modua. Azken batean, bilatzen dena da elkarrizketatuak egoeraren definizio pertsonala zelan islatzea duen ezagutzea.

Elkarrizketen dinamika indibiduala izango da eta oro har irekia izango da, gidoiaren laguntzaz. Honek baina, ez du esan nahi, elkarrizketaren une batzuetan galdera zehatzik egingo ez denik. Egituratugabeko elkarrizketa honen helburua ez da izango informazio hutsa bilatzea, baizik eta, elkarrizketatuak zer eta nola adierazten duen adierazi nahi duena.

Bestalde, elkarrizketarako prestatuta dagoen gidoia ez da izango galderak banan-banan egiteko, alderantziz, egituratugabeko elkarrizketaren printzipioari jarraituko zaio; hau da, bideratu gabeko elkarrizketa izango da. Honen helburua elkarrizketaturen mundu sinbolikoan astiro-astiro murgiltzen joatea baita. Beraz, ez da galdekizun bat izango, baizik eta sakondu nahi diren gaiak, kontzeptuak, dimentsioak sartuko dituen elkarrizketa. Horretarako, ikergaiaren profil bereziak bilatuko dira; hots, subjektuaren ikuspegia eta ez diskurtsoen egitura globala.

Dena den, elkarrizketa egin ahala, baldin eta helburuetarako baliagarria izan daitekeen informazioaren bat agertzen bada, hau gidoian sartu eta honen aldaketa egin ahalko da.

Teknika honekin elkarrizketaren kasu bereziak aztertuko dira eta balio izango du ere gerorago burutuko den inkestaren galdekizunerako hiztegi eta kontzeptuen bilaketa egiteko. Ezagutu nahi dena da arloetako zenbait teknikarik jaso duten prestakuntza ezberdinei buruzko informazioa eta balorazioa. Geroago, baldin eta haien prestakuntzan ahuleziarik sumatzen badute, konponbideak eskatuko zaizkie. Amaitzeko, adituek proposatutakoak zer iruditzen zaien eskatuko zaie.

Elkarrizketa hauetarako gidoiaren oinarria talde nominaletik ateratako proposamenak eta ideiak izango dira.

Talde nominala: Behin teknikariek agertzen dituzten kezka eta beharrak ezagututa, eta haiek zein adituek egindako proposamenei buruzko iritzia jasota, informazio hau guztia hasierako adituei bueltatuko zaie, teknikarien aldetik jaso diren proposamenak kontuan hartuta prestakuntza proposamen osatuak egin ditzaten. Balizko aldaketak egin eta bildu ostean, hauek jaso eta berriro bidaliko zaizkie, proposamenetan azken aldaketak egiteko.

Amaitzeko, aldaketa hauek guztiak kontuan hartu eta txosten bat egingo da.

IV.3. Emaizzen txostena

Txostena 2003ko otsailaren azken astean aurkeztuko da eta ondoko atalak izango ditu:

0. Sarrera
1. Aurretikoak
2. Helburuak&Metodologia
3. Emaizak
4. Ondorioak
5. Bibliografia
6. Eranskina (Transkripzioak)

Hau guztia bi eratara aurkeztuko da. Batetik PowerPoint euskarria erabilita ikerketaren ildo eta ondorio nagusiak azalduko dira. Bestetik goian zerrendatutako puntu guztiak zehatz-mehatz azaltzen den txostena.

Metodologia kuantitatiboaren bideari helduta:

Inkesta:

Metodo kuantitatiboak helburu bikoitza dauka: deskribatzea eta azaltzea. Gertakari eta egoera sozialak baliabide matematikoak erabiliz deskribatzen ditu, analisi estatistikoa lortzen du. Metodologia honetan inkesta da datuak propio sortzeko erabiltzen den teknika. Teknika hau aztertu nahi dugun unibertsoaren lagin errepresentagarri bat atera eta hauei inkesta sortutako galderak luzatuta burutzen da.

Horretarako, ikerketan parte hartu duten adituek eta teknikariek egindako prestakuntza proposamenak aldagaiez operazionalizatuko da, galdesortan bildu eta zenbait arlotako teknikariri bidaliko zaie. Inkesta posta bidezkoa izango da eta galderak oro har *Likert* eskalan formulatuko dira. Dena den, zenbaitetan aukera emango da egiten zaion galderari erantzun ireki bat ere emateko.

Inkestaren lagina egiteko lehenbizi unibertsoa zehaztu behar da eta hau osatzen dutenen kopurua ezagutu. Kasu honetan Euskal Herri osoan normalkuntza arlo ezberdinetan diharduten teknikari guztiak izango dira.

Hauek dira eman beharreko urratsak:

Laginarekin markoa unibertsoaren deskriptore baliagarria izateko unibertsoa identifikatu behar da, eta horretarako, instituzio eta erakunde ezberdinen informazioa jasoko da, hau ahalik eta osatuena izan dadin. Teknika hori erabilia, diseinatuko den laginak errepresentagarritasun baldintzak lortuko ditu.

Hurrengo urratsa laginaren tamaina aukeratzea da, hau da, zenbat inkesta egingo diren. Horretarako, zenbait faktore hartuko dira kontuan: besteak beste, denbora eta eskura dauden baliabideak (diru iturriak, materialak eta lan taldea).

Ikerketa honen diseinuan errepresentagarritasuna lortu nahi da, eta horregatik, diseinu probabilitikoa proposatzen da. Ondorioz, laginaren tamaina ahalik eta errore txikiena izateko bestekoa izango da. Horretarako, laginketa aleatorio estratifikatua egingo da, hau da, unibertsoaren arlo guztietako eta kategoria guztietako azpitaldeak modu proportzionalan eta aleatorioan banatuko dira bakoitzean dauden kopuruak kontuan hartuta. Hau da, afijazio proportzionala egingo da.

Arloak, antzintasuna eta lurraldetasuna izango dira estratifikaziorako erabiliko diren aldagaiak. Behin unibertsoaren tamaina ezagututa nahi dugun laginaren tamaina ezagutzeko ponderazioa egingo da.

**IKERKETAREN GARAPEN UNEAK ETA
FASEAK.**

Lana burutzeko hiru une eta bi fase bereizi behar dira. Halere, egin behar batzuek ezinbestean, une zein fase bereiztu horietako baten baino gehiagotan egin ahal izango da.

Lanaren iraupena, inolako ezustekorik ezean, zortzi hilabetera mugatuko da: 2002ko ekainetik 2003ko otsailera bitartean. Ondorioz, otsailaren azken asterako lanaren emaitzak aurkeztuko dira.

Aipatutako uneak eta faseak hauek dira:

1. UNEA: Uztailetik abuztura bitarteko iraupena izango du eta egin beharrekoak izango dira ikerketa ahalik eta gehien zehaztea eta beharrezko dokumentazioa biltzea.
2. UNEA: Irailetik azarora luzatuko da eta lehendabizi ikerketaren diseinua zehaztu eta teknika kualitatiboan aurreikusitako kanpo lana egingo da.
1. FASEA: Behin aurreko informazioa jasota, alor guztietako unibertsoa ezagutu eta lagin bat egingo da aukeratutako teknikari kopuruari inkesta bidaltzeko.
2. FASEA: Inkestak jaso eta aztertu.
3. UNEA: Datu guztien azterketa egin eta txostena osatu.

FITXA TEKNIKOAK

SAKONTASUNEAN EGIN BEHARREKO ELKARRIZKETAREN GIDOIA

1. Lan horretan diharduenetik ezagutu izan dituen arloak eta hauetan izan dituen prestakuntza beharrak.
2. Teknikari modura izandako ibilbidea eta honetan izan dituen prestakuntza motak.
3. Hartu dituen prestakuntza mota ezberdinak baloratzeko eskatuko zaio.
4. Teknikariak oro har hartuta, hauek duten prestakuntzari buruzko iritzia eskatuko zaio.
5. Aurrera begirako ikuspegi bat eskatuko zaio. Horretarako arazo hauei buruzko iritzia eskatuko zaio:

-Zein prestakuntza mota behar diren

-Aipatuko ditugunen (adituek proposatutakoak) balorazioa

-Hala balitz zein prestakuntza motak erakartzen duen gehien.

Atal honetan, prestakuntza mota ezberdinak aurkeztuko zaizkio, zenbait ezaugarri kontuan hartuta: edukiak, eraginkortasuna, efikazia, iraupenak, kostuak... Hauek talde nominaletik ateratako ideietan oinarrituko dira.

TALDE NOMINALARI LUZATUKO ZAION HASIERAKO GALDERA

2000ko azaroan SEI elkarteak antolatutako *Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen* sinposiuma dela-eta, zenbait hausnarketa eta ondorio atera ziren euskararen normalkuntza lanean ari direnen formazioaren inguruan. Hausnarketa eta ondorio horien artean zeuden euskal soziolinguistika zertan ari izan den eta den, eta horretan ari direnak zer formazio behar duten egungo eta aurrera begirako eginbehar horiek ahalik eta ondoen burutzeko.

Arazo honen aurrean, Emili Boix irakasleak soziolinguistikan ari den batek izan beharreko formazio idealaren argazkia eskaini zuen.

Eskatzen dizuguna da bat-bateko ideia-jasa egitea eta zure ustez dauden ahuleziak eta beharrak bideratzeko egin beharreko prestakuntza motak zerrendatu eta hauen ezaugarriak jartzea: edukiak, iraupena, hartzaile motak...

Oharra: Galderarekin batera, Bat Soziolinguistika aldizkaria (37) luzatuko zaie.

KRONOGRAMA

EGITEKOAK/ HILABETEA	1	2	3	4	5	6	7	8
DOKUMENTAZIOA BILDU ETA GAIA ZEHAZTU.								
KANPO LANA EGIN								
DATUEN AZTERKETA								
TXOSTENA OSATU ETA AURKEZTU								

AURREKONTUA

▪ Talde nominalak.....	3.313
▪ Elkarrizketa pertsonalak.....	2.530
▪ Inkestak.....	1.084
▪ Informazio bilketaren analisia.....	2.409
▪ Txostenaren osaketa.....	1.204
▪ Gastu orokorrak.....	4.457

GUZTIRA..... 14.997 €

Aurrekontu honek ez darama BEZ barne.

BEZEROAREKIN HARREMANAK

Ikerketa guztiaren garapenean, harremanak maiztasun batez egingo dira balizko arduradunarekin. Harreman hauek ikerketa bere nahietara bideratuta dagoen jakiteko da eta baita ikerketaren aurkezpena egin eta onespina jasotzeko. Honekin batera, ikerketan zehar arazoak edo berriak izanez gero, berari helaraziko zaizkio.

BIBLIOGRAFIA

ALONSO, L.E: *La mirada cualitativa en sociología: Discursos, usos del lenguaje e interpretación sociológica. Subjetividad, interpretación, traducción.* Madrid: Fundamentos. 1998.

ALVIRA MARTÍN, Francisco. *Metodología de la evaluación de programas.*(Serie Cuadernos Metodológicos, Nº 2), Madrid. CIS, 1991.

BAT. Soziolinguistika aldizkaria. *Euskal soziolinguistika institutua sortzen Simposiuma.* (37. Zenb). Donostia: 2000.

ETXEARRIA AROSTEGI, Maitena. *Principios y fundamentos de Sociolingüística.* EHU: 2000.

GARCIA-FERRANDO; IBAÑEZ y ALVIRA: *El análisis de la realidad social. Método y técnicas de investigación social.* Madrid: Alianza, 1990.

Diseño de programas formativos. Barcelona: Gestión, 2000.

IBAÑEZ, Jesús. *Del algoritmo al sujeto.* Madrid: Siglo XXI., 1985.

LARRAÑAGA Iñaki. *Euskal soziolinguistikaren egoera eta bide berriak.* Donostia: JAKIN, 42/43, 1987.

LARREA, Txema. *Soziolinguistikaz Euskal Herrian.* Donostia: ZUTABE. HABE, 1983.

LATIESA, Margarita. *La pluralidad metodológica: una aplicación en el campo de la investigación educativa. in El pluralismo metodológico en la investigación social: ensayos típicos.* Granada: (Biblioteca de CC. PP y Sociología. Universidad de Granada), 1991

BALLART, Xabier. *¿Cómo evaluar programas y servicios públicos?.* Madrid: MAP , 1992.

RODRIGUEZ OSUNA, Jacinto: *Métodos de muestreo.* (Serie Cuadernos Metodológicos, N° 1), Madrid: CIS, 1991.

ROTAETXE, K. *Sociolingüística*, Madrid: Síntesis.1988.

SCHLIEBEN-LANGE, B. *Iniciación a la Sociolingüística*, Madrid: Gredos, 1997.